

# ETORKIZUNA LORTZEKO IRAGANA BEHARREZKOA

Jone Idiazabal

M<sup>a</sup> Teresa Gabarain Aranguren! Bati baino gehiagori izen ezaguna egingo zaio. Baina zertaz? Juan Carlos Jimenez de Aberasturiren gidaritzapean argitaratu berria den *Erreneriako Historia* liburuaren partaideetako bat da.

1930eko ekainaren 6an Errenerian jaioa da, bere ama bertakoa izanik eta donostiar batekin ezkondu bazen ere, gure herrian bizitzen jarraitu zuten. Aitona, nafarra, Erreneriako Ebarista Etxeberriarekin ezkondu zen. Pio Etxeberria, Santa Klarako pentsuetakoa eta Ignacio Etxeberria senitartekoak zituen; Antontxu Sainz ere familiartekoa zen. Beraz, herrian oso ezagunak ziren.

“Papeleraz”, perfume fabrikaz eta Panier jatetxeaz inguratutik zegoen “Elizegi-Enea” etxean bizi ziren. Guda Zibilaren hasieran 6 urte zituen, baina herrian gelditu ziren, amonaren lagun baten etxean. Haur guztiak sotoan sartu eta oso ondo pasatzen zutela dio, antzerkia egiten, kantatzen, festa batera joan balira bezala amaren azpiko gona jantziz... Eskerrak

haurrak ez direla jabetzen gertatzen den guztiaz! Berak dituen gudako oroipen eskasak morteroenak dira, eta haien eraginez urteetan su artifizialak ezin izan zituen entzun ere.

Lehen Jaunartzearen prestaketa Erreneriako “Gurutzeko Alabekin” egin zuen. Baina eskolara, batxilerra bukatu arte, Donostiara joan zen Mirakruzeko “La Asuncion” ikastetxera. Giro hartara egokitzea asko kostatu omen zitzaion -agian alaba bakarra zelako-, Errenerian Milagros Bidegain, M<sup>a</sup> Pilar Gezala eta Abelina Rebollar bezalako irakasle partikular bikainak izan ondoren.

Txikitatik irakurtzea oso gustokoa zuen, hori ere agian alaba bakarra zelako eta, noski, besteak beste telebistatik ez zegoe-lako. Beraz, oso gazte zelarik Perez Galdos, Pio Baroja, Dostoievski eta beste klasiko batzuk, irakurriak zituen. Bizitza mugatuagoa zen, Donostiara joatea, adibidez, gurasoen baimenarekin noski, ia balentia bat zen; lagunekin eskurtsioak egiten zituzten bizikletan, e.a.



Neska talde bat, hauen artean M<sup>a</sup> Teresa Gabarain, dantzariari begira elizako sarreran. 1946-47 urte inguruan.



M<sup>re</sup> Teresa Gobarain Antontxu Saiz bere lehengusuaren eskutik, 1935 urte inguruan. Biri nire begirunea.

Historiari gusto handia hartu zion, gehienbat garaikideari. 17 urterekin "Filosofia eta Letrak" egitera Madrilgo Unibertsitatera joatea erabaki zuenean, Ameriketako Historiaren arloa aukeratu zuen, gauza berri bat bezala erakartzen baitzuen. Oso irakasle onak izan omen zituen, besteak beste Miguel Artola. Ez da damutu. Unibertsitatean, berriz, ez zuen bertara egokitzeko arazorik izan Erretereriako neska bakarra izan arren. Madrilerara joateko ohiturik ez zegoen; orduan Salamanca, Valladolid edo probintzietako unibertsitateetara joaten zen gehiagotan. Halaz ere, neska gutxi egiten zuen karrera; askok Donostiako Magisteritza Eskolan egiten zituzten ikasketak.

Maitek betidanik gustoko izan duena, bere benetako hokazioa, ikerketa historikoa da, baina gaur egun horretaz bizitzea zaila baldin bada, bekak eskasak baitira, pentsa dezakegu garai haietan askoz ere zailagoa zela. Hortaz irakasle mundutik zuzendu zuen bere etorkizuna eta oso atsegina izan da berarentzat.

Urtebetez egon zen Pariseko Sorbonako Unibertsitatean Antropologia ikasten, On Felipe Barandiaranekin batera. Lana ere egin zuen Parisen, 10 bat urtez. Herri horrekin betidanik lotura izan dutela dio bere familiak:

Bere amak Baionako "Ursulinetan" ikasi zuen. Hemengo neska ugari joaten omen zen ikasketak egitera bertara edo, bestela, Ustaritzeko "Gurutzeko Alaben" ikastetxera edo Angelura. Amonaren garaian ere horrela omen zen: uste baino jende gehiago joaten omen zen "beste aldera" ikastera, guda garaian etenaldi bat izan bazen ere. Eta bere aita, berriz, urte askotan Iberiako errepresentantea izan zen Frantzian. Beraz, kanpoan urte askotan bizi izan ziren.

Maitek lehendabizi, 1967an hain zuzen, nesken lizeo batetan lan egin zuen "irakurle" gisa. Hori zer den? Bada, irakasle titularrek beste laguntzaile bat izaten zuten, natiboa, azentoa, elkarrizketa, e.a. lantzeko, hizkuntza bat ikasten ari denarentzat oso komenigarria zenez. Gero Institutu Espainola ireki zutenean, hain entzunak ziren irakasle ez numerarioen modura ("PNN"), kontratatu gisa lan egitera pasatu zen.

Paris oso maite du. Esan beharrik ez dago hiri erakargarria denik. Handia, bai. Denborarekin joan behar izaten zuen lanera edo antzerkira, distantziak izugarriak baitziren; oso gogorra omen zen komunikazioa. Eta arrazoi berberagatik edo, Argeliako Gudaren garaian Maitek, Parisen egon arren, ezer nabatiru gabe ohiko bizitza egiten zuen, gauzak nola zeuden egunkarien bitartez zekielarik.

Bere gurasoak, berriz, Frantziatik bueltatzerakoan, aita Donostiara zenez, Gipuzkoako hiriburuan jarri ziren bizitzen.

Urteak aurrera zijoazten eta, noski, lan seguru bat lortzea komeni zitzaion Maiteri eta, orduan, oposaketetara aurkeztea pentsatu zuen. Atera zituenean, lehendabizi agregatua eta gero katedra lortu zituen, La Manchara bidali zuten, Ciudad Realera hain zuzen. Bolada bat pasa ondoren, eta gogoko zuenez, Bartzelonara eskatu zuen lekualdaketa, Santa Coloma de Gramanet-eko institutoan 3 urte igaroz. Paris eta Ciudad Realeko tarte batean kokatzen du berak Katalunyak hiriburu hau, oraindik bertan bizi daiteken toki bat delarik. Oso hiri irekia, kulturaduna eta bizia dela dio, esperientzia ona bilakatu. Egia esan toki ezberdinetan egon izana onuragarria dela dio, ongi aprobetxatuz gero: toki guztietan ikasten da zerbait eta pertsona ezberdin aberasgarriak ezagutu.

Baina etxeak beti tiratzen du eta hona etortzeko garaia iritsi zela iruditu zitzaionean, Donostiako Peñafloresta institutura etorri zen. Gero, 1974. urtetik 1980.era arte Erretereriako



Koldo Mitxelena institutuan lan egin zuen. Trantsizio garaia egokitu zitzaion. Beraz, garai zaila bai politikan, bai hezkuntzan eta gauza askotan, eraldaketa garai haiek normalki zailak izaten baitira: inoiz ez zaude prest aldaketarako, inprobisatu ere egin behar izaten da.

Hemen, besteak beste, Lola Valverde eta Koldo Mitxelenaren seme alabak izan zituen lankide. Bere gaztaroko oroitzapenak baieztatu zituen, oso herri polita ez izan arren. Herri irekia jarraitzen zuen izaten, ingurukoekin konparatuz, dibertsioaren lagun, eskuzabal eta kezka kultural zuena. Ezin esan herri aspergarri edo hila zenik.

Oposaketak atera zituenean, epaimahaikide batek aholkua eman zion: "Joaten zaren toki guztietan saiatu zaitez bertako historia, arkeologia, e.a. arakatzeko, ikertzen, ikasten". Eta aholkua bere herrian praktikan jarri zuen guztiz. On Jose Miguel de Barandiarenek ere horrela omen zioen: "Japoiko insektuek ikasten ez naiz, bada, hasiko, bertakoekin badut-eta zer egina". Logikoena gertu daukazuna ikastea da, jendearekin harreman bat izaten duzu, ezagutzen duzu, ahozko tradizio bat dago, zure familiaren bidez gauzak dakizkizu... Maitek bere amari galdera ugari egiten omen zion: liberalak ote ziren hauek edo besteak. Bere aiton-amonek azken karlisten guda jasan zuten, beraiei entzunda amak bazekizkien gauza batzuk. Horrela, Maitek odolean daraman ikerketa lana egiterakoan, artxiboetan karlisten gudak ikasterakoan, gauza asko zekien zegoenez, anekdota asko, gertatu zenaren agerpen gisa. Ordurako, Juan Carlos Jiménez de Aberasturik Errenteriako Artxiboa ordenatuta zeukan, lan izugarri ona egin baitzuen. Orokorrean, erraztasun handiak aurkitu omen ditu Maitek gauzak bilatzeko inguruko artxiboetan ere (Hondarribia, Irun, Oiartzun, Lezo, Pasaia); oso ondo zainduta daudela dio. Eta, horrela, bere lana erraztuz, denentzat onuragarri izan diren fruituak lortu ditu.

Sintesi handiko historia egiteko talde bat behar dela dio, baina talde hauek mikrohistoria behar dute, eta hori herriz-herri, artxiboz-artxibo ikasiaz egin beharreko zerbait da. Munduko historiari aportazio edo kontribuzio apala da, baina ekintza garrantzitsuenekin, hari ikustezin batzuen bidez lotura bat dago.

Maiteri XIX. mendearen lehen herena interesatzen zaio, antzinako erregimenetik berriaren aldaketa hori; Europaren etorkizunean hain erabakiorra izan zen aldaketa handiko garaia.



M<sup>re</sup> Teresa Gabarain. Gaur egungo betetasunean

Frantziako Iraultzaren ondoren, herri guztiak aurrerapen baten bidean jarri zirela dio. Mende hau aztertzean zailtasun bat aurkitu du: herriaren mentalitatea nolakoa zen jakitea zaila omen da, normalean ez baitago eskutizik, ez eta memoriarik ere. Berak ikasten duen garaian ahozko tradizioak garrantzi handia duenez, XIX. mendearen azkeneko erdialdea bezain emankorra ez izan arren, bertsolaritza iturri on bat dela dio, herriak zer pentsatzen zuen jakiteko eta uste du ez zaiola behar den garrantzia eman.

Bere irakasle munduko azken urteak Groseko Xabier Zubiri institutuan egin zituen, bertan jubilatuz. Halaz ere, Errenteriarekin lotura izaten jarraitzen zuen, *Bilduma* eta *Oarso* aldizkarietan argitaratuz adibidez. Azken kolaborazioa bertako *Errenteriako Historia* liburuan eginga du, berak ezagutzen dituen Madrilgo Unibertsitatean dagoen Jose Ramon Cruz Mundet, Miguel Angel Barcenilla, Lurdes Odriozolarekin batera. Eta Maitek ezagutzen ez dituen historiagile gazte askok ere parte hartu dute oso lan serioa eta interesgarria izan den idazlan honetan. Egundoko liburua iruditu zitzaion Miguel Artolari ere, eta bera ez da edozein alor horretan. Lan bikaina da, eta ez bakarrik errenterriarentzat, baizik edozein historiagileentzat oso datu interesgarriak bilatu daitezke. Hurrengo lana zein izango ote da? Bidasoa ingurua agortu

omen du eta, seguruenik, ideia batzuk beti baititu buruan, agustino nafar baten bizitzarekin saiatuko da. Manilako artzapezpikua izan zen Isabel II. Erreginarenean garaian eta, horrexegatik liberala izan behar zuela pentsatzen du Maitek. Zer harreman zuen gobernu zentralarekin, Koloniar Ministerioarekin, e.a. interesatzen zaio. Noski, Nafarroako Artxiboaz aparte, Madrilgoak arakatu beharko ditu kasu horretan. Manila hiri zaharreko artxiboak, berriz, guda garaian dexente suntsitu zituztela-eta, agian Erromara ere joan beharra izango omen du.

Baina bere lana horixe da: dokumentu ugari erabiltzea, garrantzi gabeko ehundaka elementu baliozko zerbait bilatu arte. Zer izan garen eta zer garen jakin nahi badugu, jatorrizko iturrietan bilatu behar dira erantzunak. Ezin zara beste historiagileena irakurtzearekin geratu; noski, hori ere egin beharreko lana da, baina ez bakarra. Dokumentazio ugari dago eta dena irakurri arte denbora asko behar da.

Historiagileak, maiz, irakurri edo entzun nahi ez duzun zerbait topatzearen beldur omen dira, errealitatea ezagutzeari beldur zaio, gauza desatseginak edo latzak aurkitzen baitira; baina argi eduki behar da historia ez dela izan beti guk nahi izan duguna. Gertatutakoak aldatu ezin dira.

Garrantzi handia ematen dion ahozko tradizioa geroz eta gutxiago dagoela dio. Eta zergatik? Baserria ahozko memoria zegoen tokia izan bada ere, nekazal gizartea gutxitu denean baserritarrak hirietara bizitzera joan direlako; eta, etxeak txikiagoak direnez, belaunaldi ezberdinetako pertsonak elkarrekin gutxiagotan bizi direlako, aiton-amonekin gutxiago hitz eginaz. Lehen, agian urteekin lortzen zen esperientzia gehiegi baloratzen zen; gaur, berriz, ikasketari ematen zaio balore gutzia, urteek ematen duten jakinduria alde batera utziaz. Batzuetan jendeari hitz eginaraztea zaila da, aurreiritzi ugari dagoelako, erridikuloa egiteko beldurra. Besteetan ixildu egiten dira, gudagatik familiak zatituak baitzeuden edo oroipen txarrak ez zituztelako gogora ekarri nahi. Loturak haustea pena da denentzat.

Ni Maiterekin ados nago ahozko komunikazioaren garrantzia azpimarratzerakoan eta bere nahiarekin bat nator, ea denok saiatzen garen piska bat eta gure herriarentzat, hain mesedegarri den hori ez den gutziz galtzen.

Maite urte askotan kanpoan bizi izan denez, bere amak ematen zizkion berriak, 1995.eko abenduan ia 90 urte zituelarik hil zitzaion arte. Orain jendearen aztarna galdu xamarra dauka. Aita, berriz, 1978. urtean hil zen, eta Errenteriarekin izan duten haria jarraituz biok daude bertan lurperaturik.

Bakarrik geratu denean, denbora gehiago dauka bere buruarentzat eta gazteetan, oraindik modan ez zegoenean, bidaiatu zuena errekuperatu nahiko luke piska bat. Noski, gazteetan ere lagunak eta senargaiak izan zituen eta gaur egun hori ere errekuperatzen hasia da. Lehen esan bezala, Frantziarekin izandako loturak jarraitzen du eta alde zurratik hemendik zorionak emango dizkiot... Urte askotarako! ✍️

